



**2017KO OTSAILAREN 28KO
OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamazapiko otsailaren hogeita zortzian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Begoña Bueno Barranco, Iñaki Estensoro Sarasola, Amagoia Naldaiz Mingo, Jaber Arrasate Aierbe, Azeari Andonegi Beristain, Ioseba Hernandez Madinabeitia, Imanol Aran Barandiaran, Leire Mendia Arana eta Urtzi Iruin Arruti.

Marian Zufiria Apeztegia zinegotzia ez da bertaratu, bere ezin etorriaz ohartarazi duelarik.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2017ko urtarrilaren 31n egindako bilkurako akta.

Hernandez zinegotziak (EH Bildu) esaten du akta onartu egiten dutela eta jarraian beren eserlekuetatik altxa eta jendartean eseriko direla galdera eta erreguak puntura iritsi arte.

Akta, idatzita dagoen moduan onartzen da bertaratutako guztien aldeko botoekin.

EH Bilduko bertaratutako 5 zinegotziak beren eserlekuetatik altxa eta jendartean esertzen dira.

Alkateak galdetzen die ea azalpenik ez al dagoen.

Hernandez zinegotziak erantzuten dio galdera eta erreguetan emango dutela azalpena.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.



III.- ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA LEHIAKETA BIDEZ ESLEITZEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIO DEIALDIA.-

Lazkaoko Udalaren Etxeko Laguntza Programaren zeharkako kudeaketa eta lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio prozedura hasi eta udal zerbitzu teknikoek baldintza pleguak gauzatu dituztelarik, eta gizarte zerbitzuen batzordea hala nola ogasun batzordea informatuak izan direlarik, bere onarpenera jartzen da udal osoko bilkura honen aurrean.

Lehiaketa honen datu esanguratsuenak honako hauek dira: lizitazio oinarria den astegunetako orduaren prezioa: 18,14 euro, B.E.Z. kanpo eta jai egunetakoa berriz 21,79 euro, B.E.Z. kanpo; urteko aurreikusitako orduen kopurua 8.200 da; kontratuaren epea: 2 urte; kontratuaren luzapen posibleak: 2 dira, bakoitza urte betekoa.

Hau honela, gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 7 boto (EAJ) eta aurkako botorik gabe, honako erabakiak hartzen ditu:

LEHENA.- Berariazko Klausula Administratiboen eta Preskripzio Teknikoen Pleguak onartzea.

BIGARRENA.- Kontratazio espedientea onartu, aurrekontuaren dagozkien partiden gain gas-tua onartu eta lehiaketa ireki bidezko esleipen prozedura irekitzea xedatzea; Gipuzkoako Al-dizkari Ofizialean eta Kontratatzailearen Profilean iragarkia argitaratuz.

IV.- KIROL ZERBITZUAK LEHIAKETA BIDEZ ESLEITZEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIO DEIALDIA.-

Lazkaoko Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldagiko sorospen, kirol monitoretza, harrera, informazio, kontrol eta eguneroko zainketa, jarraipen eta eginbeharreko zerbitzuak zeharkako kudeaketa eta lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio prozedura hasi eta udal zerbitzu teknikoek baldintza pleguak gauzatu dituztelarik, eta kiroleko batzordea hala nola ogasun batzordea informatuak izan direlarik, bere onarpenera jartzen da udal osoko bilkura honen aurrean.

Lehiaketa honen datu esanguratsuenak honako hauek dira: lizitazio oinarria diren orduen prezioak, BEZ kanpo, honako hauek dira: kirol monitoretza 31,00 euro, sorosletza 26,85 euro, harrera, informazio eta kontrol ordua 27,75 euro; urteko zenbatetsitako aurrekontua, BEZ kanpo, 308.670,15 eurokoa da; kontratuaren epea 2 urtekoa da eta bi luzapen posible izango ditu, bakoitza urte betekoa.

Hau honela, gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 7 boto (EAJ) eta aurkako botorik gabe, honako erabakiak hartzen ditu:

LEHENA.- Berariazko Klausula Administratiboen eta Preskripzio Teknikoen Pleguak onartzea.

BIGARRENA.- Kontratazio espedientea onartu, aurrekontuaren dagozkien partiden gain gas-tua onartu eta lehiaketa ireki bidezko esleipen prozedura irekitzea xedatzea; Gipuzkoako Al-dizkari Ofizialean eta Kontratatzailearen Profilean iragarkia argitaratuz.

V.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 1 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.



Idazkari-Kontu hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamenaren irakurri dira.

Kreditu aldaketa honen partida garrantzitsuena Gurutzeko birrurbanizazioa eta San Inazioko zubiaren lanak aurrera eramateko hurrenez hurren jartzen diren 925.000 eta 200.000 euro dira.

Hau honela, gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 7 boto (EAJ) eta aurkako botorik gabe, honako erabakiak hartzen ditu:

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 1 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
II	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	23.000,00 €
VI	Inbertsio errealak	1.200.000,00 €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		1.223.000,00 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
VIII	Finantza aktiboak	1.223.000,00 €
GUZTIRA		1.223.000,00 €

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

VI.- GURUTZE 1-6KO BIRRURBANIZAZIO LANAK LEHIAKETA BIDEZ ESLEITZEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIO DEIALDIA.-

Udal zerbitzu administratiboek Gurutze 1-6 guneko birrurbanizazio proiektuaren laugarren faseko kontratazio espedientearen baldintza administratibo partikularren plegua osatu dutelarik eta plegu hau Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako Batzorde Informatzailean hala nola Ogasun Batzordeak aztertuak izan direlarik, Osoko Bilkurara aurkezten da bere onarpenerako.

Proiektu honen aurrekontua ZAZPIEHUN ETA HIRUROGEITA HIRU MILA EHUN ETA HIRU EURO ETA LAUROGEI ZENTIMO (763.103,80 €) gehi B.E.Z.ari dagokion EHUN ETA HIRUROGEI MILA BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAIKA EURO ETA LAUROGEI ZENTIMO (160.251,80 €) da eta bere finantzaketa udal aurrekontutik egingo da.

Hau honela, gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 7 boto (EAJ) eta aurkako botorik gabe, honako erabakiak hartzen ditu:

- 1.- Gurutze 1-6 guneko birrurbanizazio proiektuaren laugarren faseko kontratazio espedientea onartzea.
- 2.- Lizitazio deialdia egitea.

VII.- GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ERAKUNDE ARTEKO ESPAZIORA ATXIKITZEKO ERABAKIA.-

Gipuzkoako Foru Aldundiak Lurralde Historikoko Herritarren partaidetzarako erakunde arteko espazio bat sortzeari buruzko Foru Dekretua onartu du, bere bigarren artikuluan zehazten duen moduan ondorengo helburuekin:

- a) Sare bat edo erakunde arteko topaketa espazio bat eratzea Lurralde Historikoko maila anitzeko gobernuen ikuspegitik, batik bat, foru gobernuaren eta tokiko gobernuen ikuspegitik, eta horren helburua herritarren partaidetzarako politikak sustatzea izango da, herritarren eta erakundeen arteko erlazioak indartu daitezen.
- b) Herritarren partaidetzaren arloko erakundeen esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzeko espazio bat ezartzea, alor horretako elkarrekiko ikaskuntzako erakunde-komunitatea eta hobekuntza instituzionala sustatuta.
- c) Laguntza eta lankidetzak teknikorako bideak hedatzea Espazioan dauden erakundeek betebeharrak arauemaileak egikaritzeko, araudiak eta ordenantzak onartzeko eta herritarren partaidetzarako metodologiak, prozesuak eta tresnak martxan jartzeko.
- d) Herritarren Partaidetzako alorrean Foru Aldundiaren diru laguntzen politika zehazten laguntzeko tresna izatea.
- e) Prestakuntza programak eta jardunaldi espezializatuak sustatzea, baldin eta zeharkako alor honetan eskuduntzak dituzten kargu publiko adierazgarrien eskumen instituzionalak indartzen badituzte eta herritarren partaidetzaren alorreko foru eta udal zuzendari eta teknikarien gaitasun profesionalak garatzen badituzte.




LAZKAOKO UDALA

Udal honen nahia Espazio horren parte izatea izanik Osoko Batzarrari proposatzen zaio atxikimen adierazpen hau onartzea.

Halaber, Foru Dekretuak bere Hirugarren Xedapen Gehigarrian zehaztu moduan, atxikimen honek bere gain konpromiso hartzea eskatzen dio.

Gaia aztertuta, aldeko 7 boto (EAJ) eta aurkako botorik gabe Osoko Bilkurak zera erabakitzen du:

- 1.- Lazkaoko Udala Foru Dekretuak sortzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Herritarren partaidetzarako erakunde arteko Espazioari atxikitzea.
- 2.- Foru Dekretuak bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren arabera zehaztutako konpromisoak beregain hartzea.
 - a) Arlo politikoan nahiz teknikoan modu aktiboan parte hartzea Espazioko organo edo egituretan esleitutako pertsonen bitartez.
 - b) Espazioaren funtzionamendua sustatzea, proposamenen eta ekimenen bitartez.
 - c) Foru Aldundiak, tokiko erakundeen mesedetan, sustatuko dituen herritarren partaidetza arloko diru-laguntzen lerroei buruzko iritziak definitzeko eta zehazteko prozesuetan parte hartzea eta eztabaidatzea, betiere Espazioko organo edo egitura eskudunen bitartez.
 - d) Proposatzea partaidetzarako programa zehatzak, prestakuntza programak, topaketak, mintegiak eta prestakuntzako beste hainbat jarduera, Espazioko organo edo egitura eskudunek eztabaidatu eta onartu ditzaten.
 - e) Gida metodologikoak eta herritarren partaidetzarako onuragarriak izango diren beste edozein baliabide edo tresna proposatzea, bereziki partaidetzazko aurrekontuen ereduak eta estrategiak diseinatzea.
 - f) Espazioan ezartzea partaidetza alorreko praktika onak, bertan parte hartuko duten erakundeen ezagutza handitzeko eta herritarren partaidetzako foru, udal eta tokiko erakundeen politikak hobetzeko.
 - g) Espazioaren aurrekontuak ezagutzea eta, behar bada, gai horren inguruan eztabaidatzea organo edo egitura eskudunen bitartez.
 - h) Partaidetza alorrean Foru Aldundiak burutuko dituen laguntza tekniko eta lankidetzako prozesuetan udalei eta tokiko erakundeei laguntza ematea, arazoak edo gai irekiak behar bezala identifikatzeko, erregelamendu nahiz ordenantza-tipoak eta proposatutako gida metodologikoak sustatzeko, eta herritarren partaidetzako tokiko politikak hobetzera bideratutako Espazioaren beste edozein ekimen bultzatzeko.
 - i) Espazioa dinamizatzea egungo egituren bidez, eta foro teknikoak koordinatzea, hala behar bada.



LAZKAOKO
UDALA

- 3.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzari erabaki honen berri ematea.

VIII. DIRU LAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILEA.-

Diru laguntzak interes orokorrekotzat jotzen diren jokabide jakin batzuk sustatzeko teknika bat dira eta legegileak azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren bidez arautu ditu diru laguntzak oinarritzko izaeraz.

Lazkaoko Udalak diru laguntzak ematen ditu, pertsona fisiko eta juridikoen eta entitate publiko eta pribatuen eskari sozial eta ekonomikoei erantzuteko helburuarekin.

Jarduera hori arautzeko asmoarekin eta berdintasuna, publizitatea, gardentasuna, objetibotasuna, efikazia eta efizientzia printzipio orokorretan oinarrituta, diru laguntzen ordenantza orokorra idatzi da.

Ordenantza honekin Legeak oinarri orokorraren hautamenera uzten dituen alderdi batzuek garatu nahi izan dira baina aldi berean nahiko tartea uzten da berariazko oinarriak garapen hori osatzeko modua izan dezaten.

Ordenantza hau ogasun batzordean informatua izan da.

Hau honela, gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 7 boto (EAJ) eta aurkako botorik gabe, honako erabakiak hartzen ditu:

- 1.- Diru laguntzak emateko ordenantza orokor arautzailea hasierako izaeraz onartzea.
- 2.- Akordioa jende aurreko erakustaldian jartzea 30 eguneko epean.
- 3.- Jende aurreko denboraldian inolako erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko da akordio espres berri baten beharrik gabe.

IX.- MARTXOAREN 8A EGUNAREN INGURUKO MOZIOAK.-

Bi mozio daude gai honen inguruan. Bata EH Bilduk aurkeztutakoa eta bestea EAJk aurkeztutakoa.

EH Bilduk aurkeztutakoa defendatzeko inor ez dagoenez, EAJk aurkeztutakoa irakurtzeari ekitzen zaio.

EAJk aurkeztutako mozioa EUDELeke proposatutakoa da eta honela dio:

Martxoak 8: Ordezkaritza orekatu baterako 8 printzipio

"Emakume gutxi daude ordezkaturik udal mailan erabakiak hartzeko guneetan, eta tokiko politikan sartzeko eta berdintasunezko parte-hartzerako arazo espezifikoei aurre egin behar izaten diete". Hori jaso zuen Inger Lingek Europako Kontseiluko Toki eta Eskualdeko Agintarien Kongresuaren 31. saioan aurkeztutako txostenean. Kongresua urriaren 20an egin zen, eta emakumeen tokiko eta eskualdeko parte-hartze eta ordezkartza politikoari buruzkoa izan zen.



Erabakiak hartzeko guneetan emakume eta gizonen arteko parte-hartze orekatua edozein gizarte demokratikoren aurretiko baldintza da. Emakumeek eta gizonak tokian tokiko bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako Europako Gutunean horrelaxe baieztatzen da, eta tokiko gobernuei honakoa eskatzen zaie: beharrezko neurriak eta estrategiak hartzea, emakume eta gizonen ordezkaritza eta parte-hartze orekatua sustatzeko erabakiak hartzen diren tokiko esparru guztietan.

Neurri horien artean, Eusko Legebiltzarrak onartutako Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legearen 23. artikulua xedatzen duenez, "euskal herri-aginte guztiek, beren zuzendaritza-organoetako eta organo kolegiatuetoako kide izateko pertsonak izendatzerakoan, izendatutakoaren artean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izan dadila sustatu behar dute. Xede horretarako, beharrezkoak diren arauzko neurriak edo bestelakoak hartuko dituzte". Aipatutako Lege horretan, profesionalen, enpresaren, gizarte-ekonomiaren, sindikatuen, politikaren, kulturaren eta bestelako arloetako elkarte eta erakunde zuzendaritzako organoetan emakume eta gizonen presentzia orekatuari buruz hitz egiten da. Horretarako, zuzendaritzako organoetan emakumeen presentzia areagotzea ahalbidetzen duten neurrien arabera dagozkien diru-laguntzak egokitu ahal izango dituzte, eta ezin izango diete inolako laguntzarik eman hautaketa-prozesuan edo lan-jardunean sexua dela-eta bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeei.

Udalgintzan, EAEko udaletako %24,7an soilik daude emakume alkateak, eta euskal herritarren %18,82 ordezkatzen dute. 2015ean, alderdi politikoek %32,58an soilik aukeratu zituzten emakumeak hauteskunde-zerrendako zerrendaburu, eta, iraunkortasunari dagozkionez, emakumeek abiadura motelagoan igo ohi dira mailaz, baita lidergoan denbora gutxiago iraun ere.

Euskadin gehiengoa duten sindikatuen artean, batean soilik dago emakume bat Idazkari Nagusi; era berean, Euskadin egoitza duten erakunde finantzarioetako batean ere ez dago emakumezko lehendakariarik, eta erabakitze organo garrantzitsuenetan %22,6 soilik dira emakumeak.

Elkarteetako emakume eta gizonen parte-hartzeari buruzko ehunekoei dagokienez, generoko ezberdintasun nabaririk izan ez arren, tradizioz rol femeninoa duten elkarteetan gehiago dira emakumeak: hezkuntza, erlijio, garapenerako lankidetzak eta gizarte-laguntzako elkarteetan. Kirol, politika, sindikatu, lanbide, arte eta herritarren esparruko elkarteetan, aldiz, nagusitasun txikiagoa dute.

Bestalde, emakumeen elkarteek, oro har, aurrekontu eta eragin-gaitasun mugatua izan ohi dute udal politikan.

Egoera horren JAKITUN, Lazkaoko Udalak txosten europarreko gomendioak eta Emakumeek eta Gizonak Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako Europako Gutunetik eratorritako konpromisoak onartzen ditu, baita emakume eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako betebeharrak ere, honako honetarako konpromisoa hartzeaz gain:



- 1.- Kontsultarako eta erabakiak hartzeko organoetan emakume eta gizonen ordezkariak orekatua eta tokiko edozein organotarako izendapenak bermatzea, betiere, sexu batek ere ez dezan izan %40tik beherako ordezkariak (emakumeen parte-hartzea sustatzeko egitura espezifikoetan izan ezik).
- 2.- Zenbait mekanismo ezartzea, hautatutako emakume ordezkariak eskumen-banaketa edo funtzio-esleipen estereotipatuaren edo bestelako diskriminazio- edo jazarpen-moduen eraginpean izatea eragozteko.
- 3.- Parte-hartzea eta bizitza pertsonal eta familiarra uztartzea ahalbidetzen duten neurriak hartzea, ordutegien eta lan-metodoen eta herritarrei laguntzeko sistemen bidez.
- 4.- Sexuaren arabera bereizitako estatistikak jaso, bideratu eta publiko egitea, itxura sistematikoa emateko, tokiko esparruan emakumeen parte-hartzearen bilakaeraren jarraipena egin eta analisi horren arabera neurri zuzentzaileak ezartzeko.
- 5.- Emakumeen parte-hartzea indartuko duten espazioak eta sareak sendotzea, hala nola, emakumeen etxeak, jabeak eskolak eta/edo udal berdintasuneko kontseiluak, eta, besteak beste, emakume hautetsientzako 'Virginia Woolf Basqueskola' jabeak eskolakoko programan parte har dezaten ahalbidetzea.
- 6.- Udalerriko emakumeen ahalduak eta parte-hartze soziopolitikoaren sustapena ahalbidetzen duten ekintza espezifikoak ezartzea modu inklusiboan, batez ere, gutxiengo taldeko kideak diren emakumeei dagokienez.
- 7.- Udalerrian gauzatzen diren parte-hartze prozesuek genero ikuspegia kontuan hartzen dutela bermatzea.
- 8.- Udaletako berdintasun sailetan eta gainerako udal sailetan neurri horiek gauzatu ahal izateko baliabide nahikoak jartzea.

Emakumeen parte-hartze sozial eta politikoa indartzeko xedez, alderdi politikoei eskaera egiten diegu konpromiso hauek beren gain har ditzaten eta beste eragile politiko eta sozialentzat ereduak diren neurriak har ditzaten."

Mozioa bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 7 boto (EAJ) eta aurkako botorik gabe beraz onartzea erabakitzen du.

Une honetan EH Bilduko zinegotziak beren eserlekuetan esertzen dira.

X.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Hernandez zinegotziak (EH Bildu) esaten du jasota geratzea nahiko lukeela EH Bilduren mozioa ez dela bozkatu ere egin.

Esaten du baita ere jarrera hau hartu dutela udal kudeaketan horrelaxe sentitzen direlako eta idatzi bat irakurtzen du idatziak honela dio:



"EH BILDUKO zinegotziok udal kudeaketaren parte garela gogorarazi nahi dizuegu udal gobernu osatzen duzuen PNVko alkate zein zinegotziei.

Zergaitik?

Etxeko laguntza zerbitzuaren lizitazio deialdian inongo eztabaidarik izateko aukerarik izan ez dugulako. Dokumentazioa jaso bai baina gure iritzia jaso eta udal talde desberdinen arteko lanketa baten ondorio izango den lizitazioa ateratzeko aukerarik ez dugu izan.

Kirol zerbitzuen Lizitazioan lanketa egiten ari zinetela jakin genuen, ohiko osoko bilkurara bideratzeko deialdiarekin batera jaso dugu plegua eta guk komentatu genituen lanpostuen inguruko gomendioak ez dira inon azaltzen, beraz horrela ulertu behar dugu beste irizpide batzuk dituzuela. Lanpostu publikoa pribatizatzeko erabakia hartu duzuelarik.

Kreditu aldaketan, 1.200.000€ tik gorakoa planteatzen duzuen gastuaren gehikuntza, urtea hasi denetik 2 hilabete pasa direnean, udal aurrekontuak nola egin diren adierazten digu.

Gurutzeko lizitazioak urte desberdinetan garatu behar bada eta legealdiz aldatzen denean ere aurrera egingo badu, ez al litzateke egokia udalean parte hartzen duten taldeen arteko adostasuna bilatu nahi izatea?

Udalak diru laguntzak arautzeko ordenantza orokor bat izan behar duela badakigu. Erabakia landutakoa izan behar dela eta hobetzen joan daitekeen arren urteetan iraun beharko lukeela deritzogu. Presaka egiteak beraz ez du zentzurik, lanketarako, udal taldeen iritzia eta gomendioak kontuan hartuak izateko denbora eta bilerak jartzea da gure ustez prozedura egokia. Beste herri batetik oinarria hartu eta kopia arren gure herrira moldatzea komeni dela pentsatzen dugu, gure herriaren berezitasunak kontuan izanda.


Martxoaren 8 ko talde desberdinen arteko idatzien artetik berriro ere adostasuneko testu bat ateratzeko ahaleginak ez dute fruiturik eman. Gure aldetik, Eudeletik zetorrena adostuta zela jakitun, Lazkaori begira zehaztapen batzuk gehitzea zen asmoa.

Udal Gehiengoaren jokoan sartu ordez berdintasunaren aldeko testu batek ez al luke zentzu gehiago?

Udal gobernu honek alkatetzaren ebazpenen berri eman ordez udal kudeaketa osoaren BERRI ematen du, besteoi inongo iritzia, eztabaida edo erabakitze espaziorik utzi gabe. Informazio trukaketa falta, batzordetara ezjakintasunez joan beharra, lanketa eta eztabaidarako ezintasuna argitaratzen dute. Gu ere Udal honetako partaideak gara eta baldintza duinak eskatzen ditugu, akordioetara iristeko edo oposizioan jarduteko.

Gaur egun, ikusle eta entzule soilak sentitzen gara Udal jardun honetan.

Hori dela eta jarrera aldaketa bat eskatzen dugu udala osatzen dugun EH BILDUKO zinegotziok. Arrazoitutako iritzien eztabaida guneak ireki eta herritarrak udal erabakietan ahaldu. Gaur, onartu duzuen "Parte hartze espazio" horretara atxikitze erabakia hitz hutsalean bihurtu ez dadin."



Alkateak erantzuten du esanez banan bana puntu guzti horiek daukatela erantzuna. Esaten du baita ere seguruenera denok hobetu dezakegula elkar lan horretan. Baita ere esaten du gaiak batzordeetara eraman direla eta horrek lan bat suposatzen duela gobernuarentzat eta oposizioak ere baduela bere lana batzordeetan eta erantzun erraza iruditzen zaiola gaurko honetara jotzea. Baita ere esaten du, esan dituen guzti horietan, ez duela esango gezurrik esan duenik, baina bai denak ez direla zuzenak.

EH Bilduko zinegotziak alde egiten dute bilkuratik.

Alkateak bukatzen du esanez hau baldin bada herri bati zaion errespetua, bukatutzat emango duela osoko bilkura.

XI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hogeita lau direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

